

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

2021eko JEZa ordaintzeko borondatezko epea

Javier Gallego Rodríguez Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak:

Jakinarazten du: Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak ordaintzeko moduan daudela.

Borondatezko epea 2021eko azaroaren 10ean hasi eta 2022ko urtarrilaren 10ean bukatuko da. Epe hori bukatutakoan, ordaindu ez dutenei kuotak premiamenduko betearazte bidez kobratuko zaizkie, ehuneko 20ko errekaruarekin, Arabako zergen otsailaren 28ko Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Erriberagoitiko Udalarari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, aurrerantzean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2021eko urriaren 28a

Alkatea

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ